


Nafarrokaria

Nafarroako gehigarri berezia / Ostirala, 1991ko Abenduak 20 / 3. zenbakia



Baztango bailaran dagoen Ziga herri txikia.

Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

Joan den maiatzaz geroztik arras lardaskaturik ditugu iruñear frankok gure tripak. Triki-traka horren zergatia: gure alkate jaun txit petrala!

Ulertzen zaila da, zinez aitortu beharra dagoela, nondik nora doazen Alfredo Jaimereren kasketa ezin emetsuagoak.

Ulertzen erreza, guzcion kalterako direla.

Alkatetzaz jabetu baino lehen bagenuen haren berri, eta haren partidua ere bai. Berri guziak txarrak ziren, zein baino zein txarragoak eta, ondoren gertatu dena bazegoen aurretik asmatu eta, baita ebitatzerik ere. Zernahi alkatek, gureak barne, bere herritargoaren luzagarria behar du izan; biak, herritargoa eta alkatea elkarrenganako isplua eta islada osatuz. Gure kasuan, aldiz, txarrenean baizik ez gaitu ordezkatzen, hemen eta gure artean, onik ez balitz bezala!

Iruñeko Udalbatzaren osaketak, nabarmenik uzten du gure hiria ez dela, hainbatek uste bezala, atzerakoi, errekte, meapila eta burubero hiri bat. Izan, halako aleak badira ere, arraioa!

«Zenbakirik gabe ez dago iraultzarik egiterik» zioen Liburu Gorriaren egileak. Horratio, kalkulu batzuk egin ditzagun, afera hobekiago konprentitzeko.

Iruñeak 180.000 biztanle dituela, 144.500ekoa da hauteskunde zentsua. Hauetarik, 60.500ek, % 41,8k, ez ikusiarrena egin zuten joan den maiatzeko bozketan eguneko hauteskontzia. Gehiegitxo, ezta! 84.200 izan ginen botu-emalek eta, 32.700ek, % 38,9k, UPNren alde egin zuten. Gainontzekook, ordea, beste aukeren artean banatu genuen gure botuak, PSOE, HB, EA eta IU izan zirelarik zinegotzirik eskuratu zutenak.

Ezin ahaztu, bestalde, botu ugari bide bazterrean gelditu zirela, gehienak ezkertiarak izanki.

Ondorioz, UPNk, 13 ordezkarik ditu Udalean eta, besteek 14. Beraz, bada, gure protagonistaren euskarri politikoa baina bat gehiago badute beste multzokoen, gehiengo beraiezen menpe dela.

Halaz ere, zentro eta ezker aldera begira dagoen hiri honek kokolo handi bat dauka alkatetzat eta, Bambalunak ez du, zinez diotsut, halakorik merezi.

Oposizioko partiduek, atak guztiz zabalduz, UPNen esku baimendua dute alkatetzat eta hiriaren gobernu, beraiezen arteko fobia, gorroto eta korporazio interesak direla medio; hori bai, goi mailako arrazoi-pisuzko eta aitzaki biribilak argudiatuz. Aratz, ze-nolako matxura eta nahigabea!

Oposizioaren errakuntzak errakuntza, bada garaia hutsegite hura zuzentzen hastekoa. Bil daitezela eta, kontu dotriarioak sikiera une bakar batez alde batera utzita, zentsura mozioa eta kandidatu alternatibo bat aurkez dezaten.

Jaimereren oposizio bakarra, zentzuzkoa, alkatetzatik kentzea litzateke.

Hori ez egitekotan, ez dezatela Iruñearren onerako ari direla esan, ez eta oposizioan daudenak ere.

'Leader': mendialdeari begira

Nafarroako mendialdea garatzeko proiektua —'Leader' proiektua— joan den ekainean ateratu zen egunkari eta komunikabideetan, Behi Kudeaketarako Institutuko teknikoak (ITG-V) horretarako asmoa azaldu zuenean. Europar Komunitateak B-5 izeneko zonaldeendako —hau da, mendialdeko zonalde atzeratuendako— ematen zituen laguntzak aprobetxatzea zen helburua, proiektu sendo bat osatu ondoren, dirulaguntza hori bideratu eta kudeatzeko.

ITG-Vk, esan bezala, hartu zuen horren ardura, baina Nafarroako Gobernu berriaren osaketarekin

etorri zen auzia. Gobernuak gehigizkoa iritzi zion enpresa honek horrelako inbertsioaren kudeatzaile izateari, eta proiektua geldierazi egin zuen, aurrera eramateko bere nahia azaldu bazuen ere. Auzi guzti honek, talde eta sindikatuen arteko akusazioak ere sortu zituen, Mikel Elortza ITG-Vren gerentearen dimisioa ekarri zuen.

Abenduaren 11n, baina, osatu zen 'Leader' proiektuaren talde bultzatzailea, udal, sindikatu, enpresariaren erakunde, talde kulturalak, Nafarroako Gobernu eta ITG-Vko partaideekin. Orduan ere osatu zen proiektua garatzeko egitasmoa,

egun Brusselen dagoena, horko onespeneraren zain. Egitasmo honek aurrera egiten badu —eta partaide guztiak eginen duelakoan daude—, 2.710 milioi pezetako inbertsioak bideratuko lirateke zonalde hauetarako, honek ekarriko lukeen berpizte eta bultzadarekin.

Hori, jakina, ez litzateke gaitz guztientzako sendabelarra, baina egoera hain larria izanda, ahalegin guztiak eskertzekoak dira. Proiektuan partaide den batek adierazi digunez, «bazen garaia horrelako proiektu batek guztion ahaleginak biltzekoa, guztion onerako ere izanen bait da gerora».


Barnean

KANTUTXAPELKETA



Larunbat honetan izanen da finala Doneztebeko Bordatxon / III

IZETA



Elizondoko erlojulariak nafar bertsolariaren omenaldia jaso zuen / VIII

Europako nekazal politikak ekarriko dituen ondorioei aurre egiteko, eta kaltetutako zonen garapena bultzatzeko abenduaren 11n aurkeztu zen Cederna-Garalur izeneko taldea, Nafarroako Gobernuak, erakunde lokalak,

enpresariak eta garapen lokalean iharduten beste hainbat taldek osatutakoa. Horren ardura izanen da Europako Komunitatetik bultzatutako 'Leader' proiektua aurrera ateratzea, eta horretarako 2.710 milioi pezetako aurrekontua izanen du.

Nafarroako mendialdea da helburua

MATTIN KAPITANSORO /IRUÑEA

'Leader' proiektua maiatz aldera aurkeztu zen Nafarroan, orduko gobernuak eta Behi Kudeaketarako Institutu Teknikoak (ITG-V) horren egitasmoa aurkeztu zutenean. Helburua, Europako Elkarrekin mendialdeetako ematen zituen dirulaguntzak jaso eta Nafarroako egoerari egokitztea zen, eta horretarako 3.693 milioi pezetako aurrekontua aurkeztu zen orduan. Horietarako 900 Europako erakundetik etorriko ziren, eta besteak Espainia eta Nafarroako gobernuetatik, erakunde, enpresari eta beste hainbat tokitik.

Proiektu horrek, ordea, berehala egin zuen topo Gobernu berriarekin eta Perez Lapazararen Nekazaritza kontseilariarekin, eta ITG-Vri kompetentziak kendu ondoren, «horretarako egokia» ez zelakoan, beste proiektu bat egiteari ekin zion Sailak. Kontseilariak azaldu zuenez, aurrekontua ere «puztuegia» zegoen, eta «berriro egokitu» beharra zegoen.

Txosten berria abenduaren 11n aurkeztu zen, eta baita horretarako taldea osatu ere, Cederna-Garalur izenarekin. Ondorioz, bertako Buru Batzordeko lehendakaria Nafarroako Gobernuak da, eta lehendakariorde Jose Mari Aierdi Lekunberriko alkatea izendatu zuten, izendapen hori oraindik guztiz finkoa ez izan arren. Izan ere, mendialdeko ordezkariak egin behar dute izendapena, eta lehendabiziko hau egin zenean, ez zegoen guztiz osatuta taldea.

HAINBAT PARTAIDETAKO TALDEA Horiakin batera beste hainbat partaidek osatuko dute taldea: eskualdeetako hamaika ordezkari, sindikatuetak bi ordezkari, nekazal sindikatuetak beste bi, erakunde profesionaletako hiru, garapen ekonomikoan aditutako enpresetako bi ordezkari, talde kulturaletak eta landa etxeetako ordezkari bana, eta Nafarroako Gobernuak eta ITG-Vko ordezkari bana.

Aurkeztutako proiektuak 2.750 milioi pezetako aurrekontua dauka, eta horietako 325 Europako Komunitateak jarriko luke, Bruselen onespenez jaso zera. 732,2 erakunde pribatuaren eskutik etorriko lirateke, eta gainontzeko 1.647,8 milioiak, hemengo administrazioen eskutik. Horien artean, Espainiako administrazioa, 187,4 milioi pezetakin; erakunde lokalak, 402,2 milioiekin; eta aurrekontu handiena, Nafarroako Gobernuarena, 1.058,2 milioi pezetakin.

Proiektuaren txostena zazpi sailatan banatu da, eta hor zehazten dira jorratuko diren arloak eta helburuak. Lehendabiziko biak taldearen osaketari dagozkio, hau da, mendialdeko garapenarako erakunde iraunkorra sortzeko. Hor sartzen dira, beraz, Garapenerako Zentruaren (CEDER)



Abelazkuntza arlorako dirulaguntzak ia bostehun milioi pezetakoak izanen dira.

Dirulaguntzen zatirik handiena nekazal produktuek jasoko lukete Bruselen dagoen azterketaren arabera: 900 milioi pezeta. Bertako produktuendako plangintza zehatza egitea da helburu nagusia.

sorrera eta behar den laguntza teknikoak. Atal horrek 170 milioi pezetako aurrekontua izanen luke.

Bigarren arloak lanpostuak eta baliabideak sortzea du helburu, eta kontratazioak egiteko eta lanbide hezkuntzarako dirulaguntzak 363,2 milioi pezetakoak izango lirateke. Horren arabera, 'garapenerako agenteak' izeneko hezkuntzarako ikastaroak antolatuko litzateke, eta laguntza bereziak izanen litzateke kooperatibek, kontratu berriek, praktiketan egindako kontratuek eta nekazaritza, artisautza eta ingurugiroarekin lotutako lanbideek. Esan beharra dago ere mugen arteko kooperazioak ere laguntza berezia izanen lukeela.

Hirugarrenak landa turismoa du arlo nagusia, bertan dagoen eskarera ezagutu, eskaintza garatu eta bul-

Neurri hauei egokiak direla eritzi die txostenak, «mendialdeko gizarte eta ekonomiari buruz egindako azterketen ondorio praktikoa bait dira, eta Nafarroako ibarretako arazoari irtenbidea emateko aproposak direlako».

Finantzaketa iturri eta neurrien gaineko kostu guztiaren banaketa

Neurriak	Milioiak	%	Finantzaketa tasak (%)				
			Publikoa		Pribatua		
			EK	AZ	AL	AA	
1. Laguntza teknikoak	169,5	6,3	28,3	-	4,5	46,8	20,4
2. Lanbide heziketa eta enplegurako laguntza	363,2	13,4	4,3	51,6	3,9	21,0	19,2
3. Landa turismoa	753,0	27,8	13,1	-	40,6	14,3	32,0
4. Enpresa txiki eta zerbitzu lokalak	310,0	11,4	1,3	-	8,1	17,4	73,2
5. Nekazal produktuen komertzializazioa eta balorazioa	900,0	33,2	10,7	-	-	71,5	17,8
6. Beste neurriak	133,5	4,9	20,6	-	21,4	55,5	2,5
7. Taldearen funtzionamendu eta ekipamendua	80,8	3,0	43,4	-	25,7	28,3	2,6
Guztira	2.710,0	100,0	12,1	7,0	14,7	38,7	27,5

EK: Europako komunitatea. AZ: Administrazio Zentrala. AL: Administrazio Lokala. AA: Administrazio Autonomikoa



Ettxalar.

tzatu —bai kantitate nola kalitatean—, eta turismo guneak sortzeko. Sail horrek 753 milioi pezetako dirulaguntzak ditu horretarako.

Beste arlo batean artisautza eta zerbitzu lokaletan lan egiten duten enpresentzat laguntzak zehazten dira, nekazaritzarekin zuzenean lotuta ez dagoen produktioaren bultzatzeko, eta arlo honen aurrekontua 310 milioitakoa izango litzateke.

Hala ere, dirulaguntzen zatirik handiena, zentzuzkoa denek, nekazal produktuek jasoko lukete txosten horren arabera: 900 milioi pezeta. Helburua, bertako produktuarendako plangintza zehatza egitea. Horrela, eta finantzazio publikoarekin, kalitatezko labelak eta feriei bultzada emanen litzateke; oinarriko nekazaritzari alternatibak bilatuko litzateke, eta produktuen erakustea eta salmentek toki handiagoa izanen lukete bai feria nola inguru turistikoetan. Dirulaguntza pribatuaren bidez, ekipamendua eta teknologiari bultzada emanen litzateke, eta baita nazioarteko ferietan parte hartzeari ere.

'Beste neurriak' arloan, ingurugiro, kultura eta ondasunarekin lotutako dirulaguntzak bideratuko lirateke, 133 milioi pezetako aurrekontuarekin.

Neurri horiek guztiak Europako Komunitateak dirulaguntzak jasotzeko paratzen dituen baldintzen barruan daude, oso alde txikia dagoelako aurrikuspenen artean hortaz kanpoko beste proposamenendako —neurrien % 10—. Txostenean aipatzen denez, neurri horiek «egokiak» dira, «mendialdeko gizarte eta ekonomiari buruz egindako gogoeta eta azterketen ondorio praktikoa bait dira, eta dudarik, gabe, Nafarroako ibarretan dauden arazoari irtenbidea emateko aproposak dira».

Txosten honetan egindako ekarpenak, beraz, ingurugiroa, ondasun kultural eta arkitektonikoa gorde eta gizartearen ongizatea ziurtatzeko daude eginak.

Ondorio gisa, eta bertan aipatzen den eskemaren arabera, zazpi dira helburu zehatzak baina badira hirurogei proiektu inguru «Europako esparri berriak gizarte hauetan sortuko dituen arazoak zuzendu eta bideratzeko eta garapen berri bati ekin ahal izateko. Prozesu honek guztiak dagoeneko martxan dauden beste zenbaitzukin lotua behar du izan, baina izaera propioa ere badu, izan».

Hirurogei proiektuk eskatu dituzte jada dirulaguntzak

Dirulaguntza hauetarako dagoeneko hirurogeitabi eskaera aurkeztu dituzte udal, kontzeju, enpresa eta mota guztietako taldeek, oro har 3.500 milioi pezetako inbertsioa eskatzen dutenak. Europako Komunitateak proiektu hauetarako emanen lukeen diru kopurua 930 milioikoa izanen litzateke.

M.K. / IRUÑEA

Behin taldea eta proiektua osatuta, Bruselen onspena behar da orain hurrengo urratsa eman ahal izateko. Hori lortu ondoren, talde iraunkor bat sortu beharko litzateke egitasmo osoa aurrera eramateko, eta bertan biltzen diren partaide eta proiektu guztien koordinazioa egiteko.

Hala ere, dagoeneko eskaera franko jaso dira bai udaletatik nola enpresa eta taldeetatik dirulaguntza hauetaz profitezko. Eskaera gehienak hiru arlokoekin daude lotuta bereziki: nekazal eta abelazkuntza ingurukoak, turismo eta ostalaritzakoak, eta ekonomia arlokoak.

Bertan zona guztien eskaerak jaso dira, eta mota guztietako proiektue-

tarako, biltegien hobekuntzetatik hasi eta kanping baten instalazio elektrikoak aldatzeko laneraino, tartean turismo bulegoak, aterpeak, frontoiak edota gazta ontzeko tresneria daudela.

Horrela, Beran, kasu, ahatekiekin aritzen den enpresak lantegia zabalteko proiekturako dirulaguntzen eskaria egin du dagoeneko, Igantzin, marketing proiektu bat aurkeztu da, tailer mekaniko batekin batera. Bortzirietan ere, eta turismo arloan, Arantza eta Igantzin turismo zentruak eta kirol eremuatarako dirulaguntzak eskatu dituzte bertako udal-

Jaso diren eskaera gehienak hiru arlokoekin daude bereziki lotuta: nekazal eta abelazkuntza ingurukoak, landa turismo eta ostalaritzakoak, eta enpresa arlokoak.


Baztanen, eskualdeko hiltegiatarako proiekturako eskaera egin du Udalak, eta zenbait enpresek biltegiak zabalteko. Halaber, turismo bulegoa eta arlo honetako zenbait inbertsioek ere aurkeztu dira dagoeneko.

Larraunen, enpresen eskaerekin batera, bai landare mintegietarako, nola esne ekoizleendako edota neka-

zal makinariaren tailerrendako, turismo eta ostalaritza arloko eskaerak dira nagusi, zona honek dituen aukerak baieztatzen dituztenak. Horrela aipatzekoa da landa turismoa egiteko dirulaguntzen eskaera, eta baita Lekunberriko kontzejuak turismo plangintza orokorra egindako azterketa ere. Honetaz gain, dauden instalakuntzak hobetu eta berritzeko proiektu franko aurkeztu dira.

Erronkaritik aurkeztu diren proiektu guztiak turismo eta ostalaritzarekin daude lotuta, eta aipatzekoak dira Burgiko Udalak kanpin bat egiteko aurkeztu duen egitasmoa, Gardeko Udalak aurkeztutakoa, aterpe bat egiteko, eta Uztarrotxekoak, hotela, mendi bizikletarako ibilbideak, eta ostatuak egiteko.

Honetaz gain, Aezkoan ere —Orbaizetan— kanpin bat egiteko dirulaguntzak eskatu ditu bertako enpresa batek, mendi aterpearekin batera. Aipatzekoa da ere Pirinioetako Zeharkaldiak Elkarteak zeharkaldieki eutsi eta horri buruzko ikerketak egiteko aurkeztu duen egitasmoa.



Nekazaritza Saila eta ITG-V elkarren aurka jarri zituen proiektua

M.K. / IRUÑEA

Nafarroako ITG-V eta Nekazaritza sailaren artean sortu zen auziaren inguruan 'Leader' proiektuaz zeuden interpretazio ezberdinak dira azpimarratzekoak. ITG-Vk, aurreko gobeinuarekin batera, proiektu integral modura hartu zuen egitasmo osoa, hau da zona osoarendako osagarria eta osatua izanen zena. Hortik, beraz, aurkeztu zen aurrekontua —3.691 milioi pezeta—, eta Europako Komunitatetik eskatzen zen dirulaguntza —995 milioi—.

ITG-Vk, proiektu osoa aurrera eramateko, 'garapenerako agenteak' kontratatzeke deialdia egin zuen, eta probetan Nafarroa osoko 400 bat lagun aurkeztu ziren. Horietatik hamaika aukeratu ziren, proiektua beste hamaika zonetan bait zegoen banatuta. Hauek ziren, behin beharrezko ikastaro eta praktikak eginda, lana bertan burutuko zutenak.

Madriliko Nekazal Ministeritzako batzordeak, baina, ez zuen ontzat eman proiektua, Lapazaran kontseilariak Nafarroako Legebiltzarraren aurrean egin zuen agerraldian azaldukoaren arabera, eta egitasmo osoa egokitzeko deia egin zion admi-

Espainiako Nekazal Ministeritzako batzordeak ez zuen egokitzak jo ITG-Vren proiektua eta Madrilen egindako bilera batean berregokitzeko deia egin zion Nafarroako Gobernuari, bai diruz nola filosofiaz.


nistrazio nafarrari diruz eta filosofiaz, hau da, 'Leaderren' xedea ekin-tza puntualak bideratzea zen, ondoren, eta emaitzak behin ikusita, beste plangintzak burutu ahal izateko.

Nekazaritza sailak orduan esku-menak kendu zizkion ITG-Vri, aurretik kontratatuta zeuden sei agente bota zituen, eta proiektua berriro egokitzeari ekin zion. Horretarako sailen arteko beste batzorde bat sortu zuen, eta Mendialdeko Garapen eta Bultzapen Zerbitzua ere osatu zuen. Zerbitzu horrek, hain zuzen, ITG-Vk bere egitasmorako aurrikusita zituen 3.500 milioiak izanen ditu aurrekontuan, lau urteren buruan gastatze-koak. Erabaki horrek kritikak jaso

zituen oposizioko taldeen aldetik, eta ITG-V egokitzat jo zuten orduan proiektua aurrera eraman ahal izateko. Orobat, dirulaguntzetarako eskaerak puztuegiak izatearen argudioa ere errefusatu zuten bai PSNk nola EAK, eta bozeramaile sozialistak orduan esan zuenez, «mendialde-rako laguntza guztiak urriegiak izanen bait dira».

Berri ere, UAGN sindikatuak ITG-V kentzeko erabakia kritikatu zuen, eta arriskutsua eritzi zion enpresa honek aurkeztutako proiektuari aldaketak sartzeari. Cederna-Geralur taldeak, ondoren, eta bere lehendakariordearen bidez, ukatu egin zituen kritikak «osatu den taldea proiektuaren onurak jasoko dituzten zona eta erakundeen ispilu garbia bait da».

Diruzantza lanetan arituko den EHNE sindikatuko Nafarroako lehendakariak ITG-V proiektua aurrera eramateko erakunde egokiena ez zela azaldu zion EGUNKA-RIARI. «Zona baten garapenaz ari garenean ezin da, ITG-Vk egin zuen bezala, inoren kabuz eta inorekin kontatu gabe, proiektu bat aurkeztu. Bide egokiago iruditzen zaigu orain osatu den batzorde hauen bidez gitea».



NAFARROAKO 101 udal sartzten dira goiko proiektu honetan, 5-B izeneko zona barruan daudenak, hain zuzen ere. IÑAKI MARTIARENAN prestatutako infograman agertzen diren udal horiek Nafarroako lurraldearen ehuneko hogeitahemezortzia osatzen dute, gutxi gorabehera, baina herrialdeko populazioaren ehuneko hamalaua baino ez, hau da 68.000 biztanle. Zona horretako gunerik garrantzitsuenak Altsasu, Bera, Leitza eta Arakil herriak izanen lirateke.

Gazteendako zokoa

Hontza handia

Bubo bubo

2,5 kilotakoa izan daiteke
Oso eskasa Nafarroan
Azeriak harrapatzen ditu



Arranoei aurre egiteko kapaza

Gauz ibiltzen den harrapakari handiena da, 1,5 eta 2,5 kilo bitarteko pisua har bait dezake. Gaur egun oso eskasa da Nafarroan, eta soilik leku malkorretan aurki daiteke.

Tamaina handikoa, oso buru bixia dauka, gaimetik adar antzeko penatxoekin, aisa nabarmentzen direnak. Begiak laranja dituzte, biziki argiak, eta egunean zehar logurearen antza ematen badute ere, gabez zabal zabalik izaten dituzte, bere ehizaren zain.

Mota guztietako animaliak harrapatzen ditu, baina bereziki konejuak, arratoiak, sagutxoak, txoriak, sugeak, igelak, erbinudeak. Eskasia baldin badago azeri eta beste harrapakari txikiak ere hartzen ditu, beren hatzapar sendoen laguntzaz. Oldartsu oso, arranoekin borrokan aritzeko prest agertzen da, horrela behar izanez gero.

Bere oihua oso sakona da, eta irailetik aurrera aditu daiteke, bere lur eremua zedatzeko. Arreske dagoanean, ozenagoak izaten dira. Erruteak bi eta bost arrautzen artekoak izaten dira, eta otsaila eta martxoaren bitartean paratzen ditu, kobazuloan eta harkaitzetan. Normalean, hala ere, bat edo bi baino ez dira hazitzen hilabetez.



Etorkizunari nondik heldu? Ez da asmatzen erraza. Zalantza.

AITOR BAYO

Ikasi?

IKERNE INDAKOETXEA

Zertarako ikasi ikastetxeetan ematen dizkiguten asignatura guztiak? Historia: oraingo gertakizunekin nahikoa dugu. Natura: zertarako ikasi sumendien eraketak...? Matematika: ekuazioek gero ez dute ezertarako balio, eta abar luze bat.

jendea lantegitik botako zuten mehatxuz —gertatzen den bezala—. Langileak prezio baxuagoan lan egingo zuten. Hau guztia zergatik? Eskubideak defendatzen ikasi behar dugulako, ezin dituzu zure eskubideak defendatu ikasi gabe. Tontotzat eta analfabetotzat hartuko gintuzkete.

Maitatzen ikasiko ez bagenu, bizitzeak nazka emango liguke, zeren maitasuna gure bizitzan gerta daki-gukeen gauza alaigarri bakarra delako.

Ikasi ez da ikastoletan eta ematen diren gaiak ikastea bakarrik, bizitzak erakusten dizkigun pasarte guztiak

ere ikasi behar dira (maitatzen, lan egiten, defendatzen, begiratzen, konturatzeko, gorrotatzen...)

Bigarren erizpideak horrela dio:

Ikasteak zerbaitetarako balio al du? Ez, ez du balio gero makinek lan kentzen bait digute. Lehen gutxienez, ikasten zenuenak geroko lan egiteko balio zizun, baina orain hainbeste ordenagailu, konputagailu eta errota dago lantegietan non gizakientzat dagoen lan guztia kentzen duten.

Zertarako ikasi ikastetxeetan ematen dizkiguten asignatura guztiak? Historia: oraingo gertakizunekin nahikoa dugu. Natura: zertarako ikasi sumendien eraketak...? Matematika: ekuazioek gero ez dute ezertarako balio, eta abar luze bat.

Ikasten duzu 18 urte eduki arte, heldua izan arte, urtez handia, baina lanean hasten zarenean, lan honetan egin behar dena jakinda nahikoa da. Ez du ezertarako balio Betoven-en bizitza jakiteak lantegi batean. Lan batean salbuespena dago: irakasle izatean, zeren orduan ikasi duzun guztia irakatsi behar bait duzu. Baina zertarako ere ikasi 'edukatu' izaten boteretsuenek ere beren artean ongi hitzegin beharrean 'lucha libre' emankizuna eskaintzen badigute.

NON ZER

Ikastaroak

Alcala de Henareseko (Madril) 'La Arboleda' izeneko azienda eskolak natura, kirola eta ekologiarekin lotutako ikastaroak antolatzen ditu Mirador de Castilla deritzan parajearen duen etxean. Interesatuak hurrengo telefonora dei dezatela: 91-531 84 81, edo helbide honetara idatz dezatela: Ctra. Barcelona, 25, 28080 Alcala de Henares.

Nafarroako Esperanto erakundeak hizkuntz honi buruz ikastaroak antolatzeari ekin dio Iruñeko Gaztedi Etxean, Zangoza kalean, 3. Ikastaroak ostiralero arratsaldeko bostetatik zazpiak bitartean izanen dira.

Futbol salako epaile izatea zure gogoko ametsa bada, orain baduzu parada ederra. Federazioak horretarako ikastaroak antolatu ditu 13 urtetik gorakoendako, eta telefono honetara baino ez duzu hots egin behar: 10 78 55, goizeko bederatzietatik ordubiak arte.

Sendabelarrei buruzko ikastaroak antolatu ditu Sorginak taldeak, astelehen, asteazken eta ostiralero, arratsaldeko zazpietatik bederatzietara Iruñeko Gaztedi Etxean. Telefonoa: 23 35 12

Gaztedia Etxean komikiei buruzko teknikak eta sekretuak ikasteko ikastaroa antolatu du. Interesatuak 23 35 12 telefonora dei bezate.

Lehiaketak

Pedro Atarrabiakoa kondagintza lehiaketarako deia egin du Beti Onak Atarrabiako elkarteak, euskaraz zein gaztelaniazko ipuinetarako. Testuak martxoaren 31 baino lehen bidali behar dira Beti Onak Elkartera: Atarrabia, 1. 31610 Atarrabia-Billaba.

Nafarroako Unibertsitateak Kazetari Erreportaiei XI Lehiaketarako deialdia egin du bertan ikasten duten guztiendako. Baldintzak Kazetaritza Fakultateko Idazkaritzan har daitezke.

Lana

Foru Komunitateak Mendi Ingeniari Tekniko bat kontratatatzeko oposizio deialdia egin du, bertako administrazioan lan egiteko. Oinarriak eta baldintzak zehaztu nahi dituenak abenduaren 6ko Nafarroako Buletin Ofizialean (NBO) begira dezala.

KAZKARROAN

Olentzerori eskutitza

Leitzako bertso eskolan egindakoa.

Olentzero jaun idazten dizut eskutitza oso larri ez bait dakit nik oparitako zer behar didazun jarri nik eskatutzen dudana bakarrik zuk behintzat zerbait ezarri edukiko det tximini zaharra zuretzako garbi-garbi ikatza ez den edozer gauza iezadazun ekarri

Ene gizontxo benetan nago zu ikusteko irrikitan blusa iluna, abarka luze lokarriak zintzilikan zapela beltza mutur gorria makila bat eskuetan sabel ederra edukiko dezuz eta pipa bat hortzetan zuri begira egongo nauzu abenduko gau luzetan

A U E T E B L E I A N B
R Z X M U Z T A R R E D
I G A R T Z A I N R E L
Z L A T A K A I R A N E
K I M A E T D O I I T K
U E A B I U E R O O Z A
N O I R A T K Z A Z A R
N U U S A A T L N A K O
S R R O D N O Z I L E Z
I A I R A I R R Z P E H
L A K A L M A N D O Z S
Z O N O R O U E Z I G A

LETRA ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Baztango udalerrira osatzen duten hamabost herrien izenak. Herrien izenak ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.

Zaharrak berri

Hamabiak: mahaian bi begiak. Bazkaltzeko ordua dela.

Larraun

Elurretan jaioa eta izotzetan bat-taiatua.

Zikoizkerian dabilenari esana.

Areso

Telefonoak jotzen du:

— Gregorio Arratibel etxean dago?

— Ez. Hau Arratibel' dar Gregorioren etxea da.

— Barkatu! Zenbakia atzekoz aurrera markatuko nuen orduan.

Bizi Bizian

Lizarreerriko kultura eragiten

Almudi Kultur taldearen izenaren

jatorria ez omen dago oso garbi. Batzuren ustez, Erdi Aroan bertan zegoen azoka arabiarraren izena izan liteke. Beste batzuentzat, azokan bertan pisua neurtzeko erabiltzen zen tresna. Nolanahi ere, bera eta aldizkariarena ere —'Elgacena', jatorriz judutarra— Lizarran garai horretan bizi ziren kulturaren islada garbiak dira, gaur egungo kultura guztia aspaldi-koen ondorioa dela gogorarazi nahi balute bezala. Horregatik kultur guztien topaleku eta bultzatzaile izan nahi du, Lizarrako Udala inguruan duela hamabi urte sortu den talde honek. Baita berarekin batera lan egiten ez dutenen taldeena ere.

PATXI ULAIAR / LIZARRA


Almudi Kultur taldea 1982an sortu zuen Udalak, Lizarran zeuden kultur premiak bideratu eta bultzatzeko, patronatu baten bidez. Orduan erabaki zen osakerak gaur arte iraundu, eta bi erakunde eramanen dute aurrera taldea: patronatuaren batzordea, alkatea eta bi zinegotzietan, eta talde kudeatzailea, arlo bakoitzeko arduradun eta koordinatzaileen partaidetzarekin.

Lehendabiziko urteko ekintzak eritete zaharrea burutu zituen taldeak garai hartan, zeramika eta pintura ikastaroak, antzerkia eta erakusketekin, baina 1986an Fray Diego Kultur Etxean orain duten egoitzara pasa ziren, aurrekoaren baldintzak ez bait ziren egokienak. Trasladoan, baina, leku franko galdu zuten. Maria Victoria Ott taldearen koordinatzaileak azaldu duenez, «egoitza zaharrea pintura apur batekin konpontzen zen dena, baina oraingo lokala askoz txukunagoa da. Hala ere, han leku gehiago genuen, oso zabalak zelako, eta orain sakabanatu samarrik gabiltza».

Zortzi sail lantzen ditu bereziki taldeak: zeramika, pintura eta gimnasia, antzerkia, xakea, zine-kluba, literatur tailerra, eta emakumeen buruzko gaiak.

Zortzi sail lantzen ditu bereziki Almudi taldeak: zeramika, pintura eta gimnasia —hiru hauek irakasle eta ikastaro irunkorrek—; antzerki, xake, zine-klub, literatura tailerra, eta emakumeen buruzko gaiak.

Ekintzak antolatzeko orduan, erabakiak hartu baino, talde guztien artean koordinazio lana egin behar dela azaldu du taldeko arduradunak. «Lehendabiziz, patronatuaren dauden arduradunek aztertzen dute balizko egitaraua, beti ere batzordearen kontrolpean. Honek, baina, ez du arazorik sortzen, arduradunak gaietan adituak bait dira, eta, teoriak, oso ongi ezagutzen bait dute zer dagoen eta zer ekarri daitekeen. Ondoren, kanpoan dauden taldeekin jartzen



Fray Diego kultur etxean biltzen da gaur egun Almudi taldea.

SONIA SALSAMENDI

gara harremanetan, eta ekintzak garai berean izanez gero, saiatzen gara denon artean moldatzen». Antzerkian, kasu, Lizarrako Kilkarrek taldearekin batera osatzen da egitaraua.

Patronatu honetarik kanpo dauden taldeekin ere koordinazioa izaten da, ekitaldiak batera izan ez daitezela. «Kanpoko talderen batek zerbait antolatzen duenean, koordinatzen saiatzen gara, pilaketa izan ez dadin».

Dirulaguntzak jasotzen dituzten taldeak: Udaletik, ikasleen kuotatik, eta Nafarroako Gobernuak zenbait ekintzetarako ematen dituen laguntzetatik. «Urria da ditugun proiekturako, baina moldatzen gara».

Ekintza hauek duten erantzunari buruz, balantze baikorra egin daitekeelakoan dago. «Esan daiteke Lizarrak dagoeneko baduela kulturarako publiko fidela, batez ere musikan eta antzerkian. Musika klasiko eta abesbatzei dagokienean oso tradizio handia dago inguru honetan, eta erantzuna egokia dute ekintza guztiek. Antzerkian, bestalde, somatu da nabarmen Kilkarrek bezalako falde bat izatea, asko bultzatu bait du zaletasuna». Betiko arazoak, baina, hor dāude, bereziki lokal faltarena nabarmendu du Ottek.

Gabonetarako programazio mardula prestatu dute Almudi taldekoek

P.U. / LIZARRA

Urteroko programazioa urtarilean zehazten du Almudi taldeak, eta bertan lehenabiziko sei hilabetako eskaintzak agertzen dira, urtez urte aldaketa handirik ez izanda ere.

Aurten, baina, eta berrikuntza gisa, haurrentzako zinema programazioa antolatu du taldeak urte osoari begira, 'Asterix el Galo', 'Las aventuras del Baron Munchausen', eta 'Tom Sawyer' bezalako filmekin. Maiatza aldera, eta emaitzak aztertu ondoren, erabakiko da udan ere programazioak aurrera egiten duen ala ez.

Emanaldiak musika kontserbatorioan izanen dira igandero, arratsaldeko seietan eta ehun pezetako sarrieraren truke. Honekin batera, gabonetan ere beste zenbait filme izanen dira ikusgai Lux zinematik, abenduaren 26 eta 27an eta urtarrilaren 2 eta 3an.

Horrez gain, eta gabonetarako espreski antolatuta, kontzertu, lehiaketa eta erakusketa franko ere izanen

dira Lizarran, abenduaren 21etik urtarrilaren 13ra arte. Kontzertuei dagokienez, abenduaren 21an Gabon Kanta II.

GABONETARAKO KONTZERTU ETA LEHIAKETA

Txapelketa izanen da Lux zinemaren, goizko 11etatik aurrera. Egun berean, eta arratsaldeko 20.30etatik aurrera, Iruñeko Gaztedi Etxeko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua ikusi ahal izanen da, San Juan Elizan eta Iruñe eta Vianako Printzea Abesbatzek lagunduta. Urtarrilaren 3an, eta kontzertuekin amaitzeko, nafar interprete gazteak izanen dira Julian Romano kontserbatorioan, Vianako Printzea erakundeak antolatuta.

Orobat, marrakiz lehiaketa antolatu du taldeak garai honetarako, Lizarrerriko ikasle oroendako, Epaimahiaren erabakia gaur bertan zen ematekoa, eta horren selekzioa baten erakusketa hilaren 31ra arte paratuko dute kultur etxean. Bertan ere, eta abenduaren 2tik 13ra arte, Saharari buruzko erakusketa izanen da.

Zinema

P.U. / LIZARRA

Zinema da Almudi taldeak oraindik gaintu gabe duen asignatura, urtean zehar zine-klub emanaldiak antolatzen baditu ere. Zinema komertzialak bizi duen egoera larriak eraginda, aspaldian itxi zituen atea Lizarrako zinemak, eta egun lizarretarrek Iruñeraino joatea beste aukerarik ez dute filmeak ikusi ahal izateko, Nafarroan leku anitzetan bezalaxe.

Maria Victoria Otte azaldu duenez, taldetik egin diren saioek ez dute arrakasta handirik lortu, zinemaza-

Elgacena



'Elgacena' aldizkaria.

eta literatura

leak franko izan arren. «Zinemarekiko izugarriko zaletasuna dago, baina guk antolatzen ditugun ekitaldiak ez dute erantzun ona izaten. Egia esanda, ditugun baliabideak ere ez dira apartekoak, 16 mmko kamara baino ez bait dugu, baina arazorik handiena administrazioak arlo honetan erakutsi duen ardura falta dela uste dut. Ez dago dirulaguntzarik horrelako ekitaldietarako, ezta lokalik ere. Horrela gauzak oso zailak dira».

Hain zuzen ere zine-klubak bultzatzeko, Lizarra beste lau herriekin dago elkartuta: Tuteran, Tafalla, Corrella, eta Azkoienekin, baina koop-

dinatzaileak azaldu duenez, zerbait gauzatzeko orduan, «ezin izan dugu gaia ongi bideratu».

Literatur arloan, 'Elgacena' da bertako taldeak ateratzen duen aldizkariaren izena, jadanik hamaika urte dituen. Lizarrerriko kolaborazioaz gain, kanpoko jendearen partaidetza ere lortu dute denboraren poderioz, eta kalitatearen aldetik franko igo bada ere, marginal samar ere bihurtu da, Otteren ustez.

Egun bostehun ale argitaratzen dira, eta Lizarran ezezik, Euskal Herriko zenbait liburutegitan ere banatzen da.

Mariano Izeta.....erlojularia

Mariano Izetaren aldeko festa eguna izan zen joan den igandean Elizondon, urte aunitzetan Nafarroako bertsolarietan egindako lanaren omenaldi gisa. Urtarrelean, Larre eta Hernandorenarekin batera, beste omenaldia jasoko du Donostian Elizondoko erlojulariak, Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antolatuta. Batzuek txapelketetan garaile izan dela esan baldin badute ere, antolatzaile lanetan aritzea izan da bere zeregin nagusia Nafarroako lehendabiziko norgehiagoka antolatu zenetik, 1936tik. Lan ezkutua baina egin beharrekoa, alegia.

A. BARANDIARAN / ELIZONDO

EGUNKARIA.— Noiz hasi zinen bertsolariaren munduan?

MARIANO IZETA.— Antolatzaile aunitz aldiz ibili naiz, hamabortz urtez edo, eta baita gaijartzaile ere. Elizondon Antxotenea trinketean egiten gintuen bertso saioak, eta punta puntako bertsolariak jarten gintuen, Uztapide, Lasarte, Xalbador, Azpillaga.

EGUNKARIA.— Lehen errazago zen horrelakoak antolatzea?

IZETA.— Berdintsu, berdintsu. Orain badira aldaketa batzuk, baina berdintsu. Orduan, 1962an, bertsolari bakoitzak berrehun eta berrogeitamar pezeta kobratzen zuen eta sarrera zapi eta zortzi durotan paratzen gintuen. Gero gehiago hasi ziren kobratzen. Oroitzen naiz nola behin Uztapidek erran zautan: —Mariano, orain gastu gehiago ditugu, eta hirurehun pezeta kobratu behar dugu... Eta hirurehun pezeta ordaindu behar, gauza handia bezala.

EGUNKARIA.— Eta Baztan aldean bazegoen zaletasun handia?

IZETA.— Bai, jendea biltzen zen franko. Urtean behin egiten zen orduan, eta baita bitan ere, udaberria aldera, eta gero Santiotan, edo ferietan. Orain ere egiten dira Baztandarren Biltzarran, eta abarretan.

EGUNKARIA.— Eta zuk abestu duzu inoiz?

IZETA.— Ez, ez, ni ez naiz bertsolari, ni bertsozale naiz. Ez dut behin ere bertsozik bota. Neretako zaila da, oso zaila. Idatzi eta pentsatuta, bai egiten dut, eta egin izan dut, baina bat batean botatzeko ez. Nere bertsozaletasuna gazte gaztetik dator. Oroitzen naiz nola 1936. urtean, urtarre-laren 12an, Antxotenean, Nafarroako lehendabiziko txapelketa antolatu

zutela. Nik orduan hogeitun urte nituen, eta oraindik ez nintzen antolatzailea, baina han, inguru hartan nenbilen, laguntzen. Bildu gintuen hamar bertsolari. Baxenabarretik lau: Juan Felix Iriarte, Beltran Sahargun, eta Larrosa, Bankakoak, eta Jean Harriet Aldudekoa; eta hemendik, Amaiurko Mixel Dargaitz, Elzaburuko Joxe


Ni osatzen ari naizen 'Baztango Herria ttipia' liburuan, Azkueren hiztegian agertzen ez diren hitz aunitz daude, nik bildu ditudan bi mila eta bortzehun horien erdia baino gehiago».

Mari Mutuberria, Lekarozko Francisco Edorga, Sunbillako Ximon Ibarra eta Zigako anaiak. Autobus bat etorri zen Donostiatik, eta beraiekin batera Basarri bertsolaria, oraindik 22 urte zituela. Bazegoen giro ederra. Egundaino ez dut ikusi hainbeste jende Antxoteneko trinketean. Lehenbizikoa Juan Felix Iriarte izan zen orduan, eta hurrengo igandean Donostira gan ziren, Euskal Herriko txapelketa, eta han Txirrita izan zen lehendabizikoa.

EGUNKARIA.— Gerra pasa eta gero, moteldu egin zen bertsolariak.

IZETA.— Bai, euskal kultura debekatu eta hondatu zuten orduan. Baina Gipuzkoan Basarri eta Uztapidek atxeki zuten bertsolariaren sua, eta hirurogeian hasi zen berriro mugimendu berria. Hasi ziren txapelketak egiten, Gipuzkoan Bizkaian, eta Nafarroan. Hemen Periko Diez de Uzturrin hasi zen dena mugitzen, eta Diputazioak ematen zituen soseki es-

«Ez dut behin ere bertsozik kantatu»



Hamabortz urte inguruz bertso antolatzaile izan da Mariano Izeta.

IKOR KOTX

ker, egin zen txapelketa. Bi saio egin ziren, bat Baztan eta Bidasoan, eta bestea Larraun aldera. Azkenean bildu gintuen hamar bertsolari, eta Andres Narbarte irabazi zuen orduan. Gero, hirurogeitazazpian, Euskal Herriko Txapelketa izan nintzen ni mahaikide Anoetan, txapelketa famatu hartan. Egun hartan izigarri nahasi ziren bazterrak, Xalbadorri txistuka hasi zirenean. Finalerdian Lazkao Txiki eta Xalbador gelditu ziren, eta finalera, Xalbador pasa zen. Ze txistuak eta...! eta ni harrituta. Lehiaketa guztietan bezala, beti batzuk baten alde daude, eta han Lazkaoak gan ziren. Eta Laz-

Hirurogeitazazpiko txapelketa famatu hartan izigarri nahastu ziren gauzak, Xalbadorri txistuka hasi zirenean. Hara Lazkaoak gan ziren, eta Lazkao Txiki jaingo bezala zuten, eta ez zuten Xalbadorren bertsoen erdia ere entenditzen».

kao Txiki jaingo bezala zuten, eta ez zuten Xalbadorren bertsoen erdia ere entenditzen.

EGUNKARIA.— Idatzi ere idazten duzu, eta Baztango hiztegi ttipia egin duzu. IZETA.— Ni berrogei urtekin hasi nintzen idazten, berrogeitamazazpian. Orduan hasi ziren euskarazko gauzak argitaratzen eta ni 'Zeruko Argian' hasi nintzen. Hemengo kronikak eta gauzak bidaltzen nituen, nere baitatik, irakaslerik gabe. Gero 'Herriari' ere, 'Diario de Navarran', orain EGUNKARIAN. Ondoren, hirurogeitazazpian argitaratu zen nere lehendabiziko nobela: 'Dirua galgarri', nobela poliziakoa bat. Beranduago, beste bat egin nuen, 'Nigarrez sortu nintzan'. Orain Baztango hiztegiarekin ari naiz, aurrean egin nuena osatzen ari bait naiz. Bi mila eta bortzehun hitz izanen dira hor, baina amaigabeko lana da hori, egunero entzuten bait ditut hitz berriak. EGUNKARIA.— Eta hori egiteko, nola ibili zara, baserriz baserri edo?

IZETA.— Ez, ez, hemen, nere dendan, eta jendearekin solasean. Hemen bizi da oraino euskara, eta ari naiz batekin solasean, eta nik aditu ez dudana hitza erraten badu, nik, hartu papera, eta apuntatu egi-

ten dut. Hori noiznahi gertatzen da. Adibidez, Azkueren hiztegian agertzen diren Baztango hitz aunitz ez dira erabiltzen, edo nik behintzat ez ditut aditu, baina nik baditut hitz aunitz Azkueren hiztegian ez daudenak, nik bildu ditudan erdia baino gehiago.

EGUNKARIA.— Bertsozale, idazle, eta erlojularia. Zein gustokoagoa?

IZETA.— Idaztea errezagoa da, bueno...! Gustora idazten dut nik. Ofizioan, badakizu, hau ez dabilela ongi, bestea aurreratzen dela, atzeratzen dela. Idatzi ongi egiten baduzu ez da atzeratzen, ez aurreratzen. Hor dago. Ongi egin behar, hori bai...

ZVLDI EROA

